# Xedapen Orokorrak

## OSASUN SAILA

### 2983

AGINDUA, 2006ko maiatzaren 8koa, Osasun sailburuarena, Mellitus Diabeteari buruzko Euskadiko Aholku Kontseilua sortzeko dena.

Maiatzaren 24ko 121/2005 Dekretuz Osasun Saileko Aholku Kontseiluen araubidea ezarri zen, zeinaren helburua adituen aholkularitza lortzea baita; zertarako eta, irtenbide aukerak eta osasun arazoei aurre egiteko irtenbiderik egokienak aukeratzerakoan, inplikatutako sektoreen interesak ponderatzeko.

Sanitatean jarduteko premiarik gehien duen alorretariko bat, 121/2005 Dekretuan ere hala aitortu dena, Mellitus diabetearena da, 2002-2010 Euskadiko Osasun-Planean jasotakoaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoan burututako azterlanek erakusten duten moduan, Mellitus diabetea osasun arazo lehentasunezkoa da gaur egun, morbilitate handia eragiten duelako, konplikazio ugari sortzen dituelako, gaixoen bizitza kalitatea asko murrizten duelako eta gaixotasunaren ondorio sozialak eta sanitarioak handiak direlako.

Arlo horretan hartu beharreko ebatziak korapilotsuak ere badirenez, aholku-organo bateko adituen ebaluazioa eskatzen dute, zertarako eta, laguntza emateko gizartean eraginkortasun gehien duten irtenbideak bilatu eta ezartzen.

Horiek horrela, hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– 1.– 121/2005 Dekretuan xedatutakoaren haritik, Mellitus Diabeteari buruzko Aholku Kontseilua sortzen da, zeinaren helburua diabetearen arloan aholku teknikoa ematea izango baita.

2.– Mellitus Diabeteari buruzko Aholku Kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Osasun Sailari dago atxikita, baina ez du Sailaren egitura hierarkikoan parterik hartzen.

*2. artikulua.*– 1.– Aholku Kontseiluaren eginkizunik behinenak: osasunaren helburuak lortzeko neurriak proposatzea eta 2002-2010 Osasun Planean Mellitus diabeterako jasotako estrategiak garatzea.

2.– Horietaz gain, honako hauek ere bai:

a) Argibideak eta aholkuak ematea arlo hauetan: lehen eta bigarren mailako prebentzioa, diagnostiko goiztiarra, tratamendu terapeutikoak eta osasunera bideratutako hezkuntza.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### 2983

ORDEN de 8 de mayo de 2006, del Consejero de Sanidad, por la que se crea el Consejo Asesor sobre la Diabetes Mellitus en Euskadi.

Mediante Decreto 121/2005, de 24 de mayo se establece el régimen de los Consejos Asesores del Departamento de Sanidad con la finalidad de obtener un asesoramiento experto que pondere las diferentes alternativas de solución y los intereses de los distintos sectores implicados en la adopción de las soluciones más adecuadas para afrontar una problemática de salud.

Una de las áreas de actuación sanitaria prioritaria reconocida por el Decreto 121/2005 es la diabetes mellitus, en consonancia con lo previsto en el Plan de Salud de Euskadi 2002-2010.

La Diabetes Mellitus, según se desprende de estudios epidemiológicos realizados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, constituye un problema de salud importante por su elevada morbilidad, alta incidencia de complicaciones, importantes repercusiones sobre la calidad de vida de los/las pacientes y por el coste social y sanitario que lleva asociada esta enfermedad.

La complejidad de las decisiones a adoptar recomienda una evaluación experta en el seno de un órgano de asesoramiento que colabore en la búsqueda e implantación de las soluciones de mayor eficiencia social.

Por todo ello,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Se crea el Consejo Asesor de la Diabetes Mellitus como órgano consultivo para el asesoramiento técnico en materia de diabetes, en el marco de lo dispuesto en el Decreto 121/2005.

2.– El Consejo Asesor de la Diabetes Mellitus queda adscrito al Departamento de Sanidad de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sin participar en la estructura jerárquica de ésta.

*Artículo 2.*– 1.– Será función principal de este Consejo Asesor proponer medidas para la consecución de los objetivos de salud en el marco de las estrategias contempladas para la Diabetes Mellitus en el Plan de Salud 2002-2010.

2.– Serán, asimismo, funciones del Consejo Asesor:

a) Informar y asesorar sobre prevención primaria y secundaria, diagnóstico precoz, tratamientos terapéuticos y educación para la salud.

b) Laguntza modu ezberdinak antolatzeko aspektuen gaineko argibideak eta aholkuak ematea, zertarako eta, asistentziarekin (lehen mailako atentzioa eta espezializatua) ahalik egokien jarraitzeko eta baliabideak taxuz erabiltzeko.

c) Argibideak eta aholkuak ematea arlo hauetan: informazioa, prestakuntza eta zerbitzuen ebaluazioa.

d) Laguntza prozesuen kalitatea monitorizatzeko behar diren adierazleak zehazten argibideak eta aholkuak ematea, aukera emanaz berariazko prozesuak programa kontratuetara hedatzeko eta emaitza klinikoek osasunean duten eragina neurtzeko.

e) Interbentzio sanitarioko programak proposatzea eta, hala behar izanez gero, programok gertatzen Osasun Sailarekin batera lan egitea, honako hauek zehaztuz: eginkizun orokor horien helburu operatiboak, zerbitzuetako premiak, baliabideak eta 2002-2010 Osasun Planean aurreikusitako helburu orokor eta estrategien esparruan antolatzea.

f) Argibideak eta aholkuak ematea honako arlo hauetan burututako ebaluazioen emaitzei dagokienez: alde batetik, osasun arazo horien egoera; eta bestetik, Mellitus diabetea prebenitzeko, laguntza eskaintzeko eta hezteko interbentzio sanitarioen eraginkortasuna.

g) Dagoeneko hasita edo hastear dauden egintzak aztertzea, aintzat hartuz osasun premien bilakaera eta interbentzio sanitarioen eraginkortasuna, Osasun Saileko zuzendaritza organoek onar dezaten.

h) Egite-bidean egon edo eginkizun dauden ikerketa lerroei buruzko argibideak eta aholkuak ematea, eta jarduera-arlo horretan diharduten teknologia eguneratuenen berri ematea.

***3. artikulua.***– Mellitus diabeteari buruzko Euskadiko Aholku Kontseilua lehendakariak, idazkariak eta 13 mahaikidek osatuko dute, denak ere Osasun sailburuak izendatuta.

***4. artikulua.***– Mahaikideak modu honetan aukeratuko dira:

a) Mahaikide bat, Endokrinologia eta Nutrizioko EAEko Erakundearen ordezkaria.

b) Mahaikide bat, Familia- eta Komunitate-Medikuntzako EAEko eta Nafarroako Erakundearen ordezkaria.

c) Mahaikide bat, Diabetikoen EAEko Elkarteen Federazioaren ordezkaria.

d) Mahaikide bat, Pediatriako EAEko eta Nafarroako Erakundearen ordezkaria.

e) Mahaikide bat, Diabetearen EAEko Hezitzaileen Elkartearen ordezkaria.

f) Hiru mahaikide, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren ordezkariak.

b) Informar y asesorar sobre los aspectos organizativos de los diferentes niveles asistenciales (atención primaria y especializada) para una mejor continuidad asistencial y para el aprovechamiento racional de los recursos.

c) Informar y asesorar sobre sistemas de información, formación y evaluación de servicios.

d) Informar y asesorar en la definición de los indicadores necesarios para monitorizar la calidad de los procesos asistenciales, facilitando la definición y extensión de los procesos singulares en los contratos programa y la medición de los resultados clínicos en términos de salud.

e) Proponer y, en su caso, colaborar con el Departamento de Sanidad en la elaboración de programas de intervención sanitaria, definiendo objetivos operativos, necesidades de servicios, recursos y su organización en el marco de los objetivos generales y estrategias previstas en el plan de Salud 2002-2010.

f) Informar y asesorar sobre los resultados de las evaluaciones que se realicen sobre la situación de estos problemas de salud y la efectividad de las intervenciones sanitarias destinadas a la prevención, asistencia y educación de la diabetes mellitus.

g) Analizar las acciones ya emprendidas o a emprender, según la evolución de las necesidades de salud y de la efectividad de las intervenciones sanitarias, todo ello para su posterior aprobación por los órganos directivos del Departamento de Sanidad.

h) Informar y asesorar sobre líneas de investigación en curso o que se prevean en un futuro, así como informar de la existencia de tecnologías emergentes en este campo de actividad.

***Artículo 3.***– El Consejo Asesor de Diabetes Mellitus estará compuesto por un Presidente, un Secretario y 13 vocales, designados por el Consejero de Sanidad.

***Artículo 4.***– La designación de los vocales se realizará teniendo en cuenta la siguiente distribución:

a) 1 vocal en representación de la Sociedad de Endocrinología y Nutrición de Euskadi.

b) 1 vocal en representación de la Sociedad Vasco-Navarra de Medicina Familiar y Comunitaria.

c) 1 vocal en representación de la Federación de Asociaciones de Diabéticos de Euskadi.

d) 1 vocal en representación de la Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría.

e) 1 vocal en representación de la Asociación de Educadores de Diabetes de Euskadi.

f) 3 vocales en representación de los servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

g) Hiru mahaikide, Osasun Sailaren ordezkariak.

h) Mahaikide bi, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren ordezkariak.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 8a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M. INCLÁN IRIBAR.

g) 3 vocales en representación del Departamento de Sanidad.

h) 2 vocales por la Dirección de Asistencia Sanitaria de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de mayo de 2006.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

**2984**

AGINDUA, 2006ko maiatzaren 16koa, Osasun sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatutako jardueren aitormen interes zientifikokoa arautzen duena.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, 32. artikuluan, ikerketa arloko jarduerak sustatzen ditu EAEko sistema sanitarioak aurrera egin dezan, eta Osasun Sailaren esku uzten du osasun-zientziak ikertu eta aztertzeko programak bultzatu eta koordinatzea.

Interes sanitarioaren aitormena, 1987ko uztailaren 1eko Aginduz sortu zen, ekimen publiko eta pribatuei —eremu honetan garatzen direnei— laguntzeko tresna egoki modura.

1987ko uztailaren 1eko Agindu hori aplikatu zenetik igarotako denborak eta pilatutako eskarmentuak beste arau bat garatzea eskatzen du, horren indarraldian agertutako arazoei irtenbide egokia emateko eta hasierako helburuak lortze aldera baliabide eraginkorra izateko. Beharrezkoa da, ildo horretatik, interes sanitarioaren aitormena izan behar duten jarduerak zehaztea. Heziketa helburu dutenak (ikastaroak) baztertu egiten dira beren-beregi. Ikastaroak eta etengabeko prestakuntzako gainerako jarduerek berariazko tratamendua dute 319/1999 Dekretuan xedatutako moduan, zeinaren bidez Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseilua sortu eta prestakuntza-mota hori kreditatzeko sistema bat arautzen baita.

**2984**

ORDEN de 16 de mayo de 2006, del Consejero de Sanidad, por la que se regula el reconocimiento de interés sanitario para actos de carácter científico que tengan lugar en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en su artículo 32, promueve el fomento de las actividades de investigación como un elemento fundamental para el progreso del sistema sanitario de Euskadi y encomienda al Departamento de Sanidad el impulso y la coordinación de programas de investigación y estudio en ciencias de la salud.

El reconocimiento de interés sanitario se ha configurado desde su implantación mediante Orden de 1 de julio de 1987, como un instrumento valioso de apoyo a las iniciativas, tanto públicas como privadas, que puedan realizarse en esta materia.

El tiempo transcurrido y la experiencia acumulada con la aplicación de la referida Orden de 1 de julio de 1987, aconseja su sustitución por otra norma que dé adecuada solución a los problemas planteados durante su vigencia y que contribuya de manera más eficaz a la consecución de los objetivos para los que se dictó. Así, se aprecia la necesidad de delimitar los actos que van a ser susceptibles de reconocimiento de interés sanitario, excluyendo expresamente los que tengan un objeto formativo, como son los cursos. Los cursos y el resto de actividades de formación continuada son objeto de tratamiento específico, de acuerdo con el Decreto 319/1999 por el que se crea el Consejo Vasco de Formación Continuada y se regula un sistema para su acreditación.